


Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko urtarrilaren 6a / VI. urtea / 160. zenbakia

Estralurtarrak Korrika



Aurtengo Korrikaren mezua zabalduko duen bideoa otsailaren hasieran aurkeztuko da. Manolo Gilen zuzendaritzapean, Jokin Larrearen marrazkien oinarriarekin, kilometro bat erosteko bi estralurtarrek duten esperientzia kontatuko du.

Guzti hau: larugeitamar

Hasteko esan beharra dago, maiz bat dira jabetu ez diren euskaldunak, Euskaltzaindiak Batzarra egin zuen iraila aldera, Leoian. Gure Akademiak bere ihardun burutsuen ondoren erabakitze-ko proposamenak atera zituen euskaldunok ia usadio ditugun txosten batzuetan. Batasuna omen dute helburu, xede eta jomuga. Hala omen, guk men, bada. Hortan nengoen ni behintzat hurrengo hilabeteetan erabakitze-ko dauden proposamen ditxosozko txostenak irrika bizian bila ibili nintzenean. Euskerazko irakasle batek euskaldun izateaz gain Euskaltzainek pentsatu azken erabakiaren berri izan behar du lotsa emangarri geldituko ez bada ze jendeak, ibili eta buelta, jakinaren gainean egon nahi baitu, eta jakinaren gainean egoteko ordua mundu bizitzea ez da aski, ez, hemen ordua euskaldun ere bizi behar baita.

Beno, txosten horiek nire eskura etorri zirela nire betebeharren seinale bailiren eta zer ikusiko eta... bihoa aurretik neronek ez dudala

gure Akademia santua kritikatu nahi, ezta urrik ere, neronek Egunkarioko eskatu zutabea baino ez dut egin nahi. Ari nintzaizuen bezala txosten horiek nire eskura etorri ziren betebeharren seinale bailiren eta han zer ikusiko eta... atzera berriz zenbakien idazmodua aldatu dutela. Hasieran bananduta izkribitu behar omen ziren, gero loturik, eta orain, atzera berriz, bananduta. Eta... galdemodua hauxe izan daiteke: ez ote zen hobea hasiera hasieratik erabaki zen moduan uztea? Ze eman dezagun zerorri, irakurle agurgarri hori, irakasle zarela eta hortan hirugarren mailan zeneukan Xabier burugogor horrek azkenean ikasi zizkizula, kostata, zenbakiak bananduta iskribitzen, bi urtera, bosgarren mailan loturik iskribitu behar direla azaltzen ari zinela, Xabierren aurpegiak gorritik txurira egin zuen eta begiak ateratzeaz zituen. Lasai. Hori gutxi ez balitz zer eta Xabier zazpigarren mailan eta zu, irakurle agurgarri hori, zenbakiak bananduta iskribitu behar direla azaltzen harbelaren aurrean,

Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE



horrelaxe ezer gertatuko ez balitz bezala, zenbakiak nola iskribatu behar diren lehenengo aldiz azaltzen ariko bazina bezala. Xabier noski, etzinda farrez lehertzen zu seinataluz lagunari 'hau jota zeok o' keinua egiten dion bitartean. Horrelako kasuetan pedagogia berria lagungarri suertatuko zaizulakoan...

Baina hemen ez dira akabatzen Euskaltzaindiaren txosten ditxosozkoak (eta batere ironiarik gabe diot). Zuk ongi, jator, dotore eta amonari aditua uste zenuenaz bestelakoa 'gomendatzen' edo 'hobesten' dute gure Euskaltzainek. Esate baterako: 'jende guzti hau'. Ba ez irakurle maitea, ez, 'jende hau guztia', 'jende honekin guztiarekin' eta abar mariabar. Badi-rudi lehenengo forma hori XVIII. mendean agertu zela lehendabizikoz euskaraz eta hura ezkerotik bere azpijana eginez gehiago urrundu gaituela Hegoaldeko anaia-arrebak Iparraldeko anaia-arrebengandik hor bigarren forma hori esaten baita nagusiki, eta hemen. (zabarrak!) guztiak. Horrelaxe aditzen ari zaren bezal-bezala.

Galdemodua: zenbateko RH-a behar du hitz edo esamolde batek gure Akademiak hobes dezan? Zein gradutaraino ailegatu behar du negatibotasunak?

Beraz eman dezagun irakurle kuttuna zure bestaldeko anaia-arreba batekin ari zarela... nola ez, zeezer hartzen. Zure anaia-arreba horrek, ez putakerietan aritzeagatik baizik eta benetan behar duelako, destornillador-tournevis-a eskatu dizula, zuk peto peto zera erantzun diezaiokizu: 'Jende honekin guztiarekin!' Eta kittos. Dotore, apain, eskuzabal agertuko zatzaizkio eskatu besterik egiten ez duen zure anaia-arreba horri. Izorra dadila, gainera, utzi zenion azken kasetea bueltatu ere ez dizu egin eta. Zertarako segi irakurle maitea, adibideak hain dira ugariak... Euskaldunok jende oso hezi eta disziplinatua garelako ustea hartzen hasia naiz. Halabeharrez, beharbada, baina egia da baita ere zirrimizkerietan ere ezin garela galdu, ezin dugula gure hizkuntzaren araztasuna gordetzen ahal. Zertarako? Nik behintzat nahiago hizkuntza intsumitua, lotu, estutu eta gartzelatua baino.

ZINEMA



'Alabama: 2.000 años luz' eta 'Tokyo-Ga' Win Wenders zine- magile alemiarraren pelikulak botako dituzte heldu den asteartean, urtarrilak 10, Iruñeko Olite zineman. Zinema zuzendari honen zikloaren barruan, emanaldia arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezeta salduko dituzte.

MUSIKA



Amaia Zubiria eta Mikel Markez kantarien kontzertua izanen da bihar, urtarrilak 7, Elizondon. Baztango Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatua, gaueko 9.30etan hasiko da, Baztan pilotalekuan.

ERAKUSKETAK



Pablo Uranga artistaren erakusketa zabalik dago Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoan. Ikusteko ordutegia goiz eta arratsaldekoa eta otsailaren 5a arte iraunen du.

'Stop HIESa' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñeko Tafalla Jauregian, Zapateria kalean. Panelak aparte, bideo proiektzioak eta bestelakoak ere ikusgai izango dira. Urtarrilaren 15a arte iraunen du eta ikusteko ordutegia hauxe da: lan egunetan 19.00etatik 21.30etara eta jai egunetan 12.00etatik 14.00etara.

BESTELAKOAK



'Iruñea eta Iruñerriko topnimia' gaiari buruz mintzatuko da Patxi Salaberri heldu den ostegunean Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen. Euskaldun guztientzat irekia, arratsaldeko 8.00etan hasiko da.

Andrea emakumeentzako zerbitzuak ikastaro ugari antolatu ditu heldu den urterako, urtarrilaren 9tik aurrera. Autoestima, Auto-defentsa, Yoga, Jendaurrean hitz egiteko teknikak, Ingelesa eta hainbat tailer antolatu ditu, goiz, arratsalde eta gaueko ordutegietan. Apuntatu nahi duenak 22 77 14 telefonora deitu edo Navarrerria kaleko Andreako egoitzara joan besterik ez du.

Pintura Lehiaketa antolatu du haurrentzat Nafarroako Antzerki Eskolak (NAE) egun hauetarako. Lau eta hamabi urte bitarteko haurrek parte har dezakete, eta marrazkia NAEra eraman edo bidali behar dute. Bi sari daude: 4 eta 7 urte bitartekoentzat mozorro berezia eta 8 eta 12 urte bitartekoentzat liburu sorta. Urtarrilaren 14a baino lehen bidali behar dira marrazkiak eta saridunen izena 'Diario de Noticias' egunkarian aterako da.

NAFAR KRONIKA

JON ALNOSO

Txapela erortzear

Cassius Clay-ri aurkariak ekartzen zizkioten arabera, halako ikusmina sortzen zen; mutikoteari beso, hanka eta bularretako giharrak begiratzeko zitzazkion, Mohammed Alí-ri irabazteko aukera zenbaterainokoa izan zitekeen gorpuzkera izugarri haie-

rrokatokian, Alí-ren betiko armek eraginda —zela hanka dantza, zela ukabildaren zehaztasuna—, gladiadore itxura ezin hobeko horiek guztiak egiazko txapeldunaren aurrean erortzen ziren. Clay-k bestek ez zeukaten dohain bat zeukan, eta, norberak nahi duena esatea

ginen, eta okertu garena aitortzear gaude, ia. Pisaketan sekulakoak bota zituen, muskulu onak zituela zirudien, baina borrokatokian ez da hain fierra. Jotzekoa egiten du, baina ez du jotzen, sokaren aurka zokoratzten du kontrarioa, baina eraso eroak betiko txapeldunaren be-



tan irakurri nahian. Gehienetan borroka oilar ikusgarriak ziren, eta espektatiba handiak sortzen zituzten. Batek ikusten zuen Joe Frazier eta bere baitan esaten zuen, alajaina, orain bai, orain irabazi egingo dio. Edo ikusten zuen George Foreman eta txapela buruz aldatuko zela egiten zuen apustu. Baskulara igotzen zirenean espantu eta balentria handiak egin eta esaten zituzten. Baina, behin bo-

daukan arren, edadeak baizik ez zion irabazi. Bizitzaren legea da. Azkenik ikasi genuen Alí txapeldun izango zela naturalezak horretarako baimena kenduko zion arte, eta interesa galitzen hasi ginen.

Hemengo eskuinaren borrokatokian antzeratsu; harpeetako biztanleei aurre egiteko gauza zen txapeldungai berri bat sortua zela uste genuen, ikuskizunaz gozatzeko prestatu

soetan heltzen dira inolako minik egin gabe, eta azkenean *clinch* horietatik askoz nekatuagoa ateratzen da. Bitartean, txapelduna, bere betiko armak —Del Burgo, Aizpun— dantzatuz, borroka bere aldera daramaten hasi da. Txapela daramana ez da txapelduna, txapela ez daramatenak dira txapeldunak eta Alí ez da Alli. Nola bukatuko? Geroak esango. Badaezpada telebista itzali egin dut.

ASTEKO PERTSONAIAK



Jan Urban
Futbolaria



Jose Luis Etxegarai
Lesakako alkatea

Osasunako aurrelari poloniarrek gorritxoak utzi egin ditu azkenean, Valladolid taldera joateko. Osasunak inoiz izan duen atzerritar onenariok, horrela, urte askoan bere taldea izandakoari agur esan dio. Bitxiak izan dira oso Jan Urbanek Osasunako jokalaririk gisa igarotzen azken asteak. Txetxu Rojo entrenatzaileak ez zuela hasierako hamaikakoan sartzen ikusita, beste talde batera joan nahia azaldu zuen poloniarrek, baina zuzendaritzak, azkenean, gelditzeko eskatu zion. Honek tinko iraun zuen eskakizunetan, eta azkenean joaten utzi egin behar izan diote. Ez du Robinsonek edo Samy Leek izan zuten bezalako agurrik ez omenaldirik izan, baina nekez ahaztuko zaie zaletu gorritxoei bere nortasun aparta.

Edozein kargu publikoan aritzeko sei urteko inhabilitazioa eskatu du Iruñeko Auzitegiko fiskalak Lesakako alkatearendako, herriko jaietan Espainiako bandera udaletxean ez paratzeagatik. Honek haserrea sortu du EAJn, Etxegarairen alderdian, eta honek berak bere harridura azaldu du erabakia dela eta: «neri nahita egin didate kargu, nahiz eta Nafarroan udal asko dauden bandera hau paratzen ez dutenak». Etxegarai esan zuen bere nahia herriko festak pake santuan ospatzea izan zela, «herri hauetan beti begi txarrez begiratzeko zailakoa Espainiako banderari, eta istiluak sortu besterik ez du egiten. Nafarroa Oinez gertatu zena gogoratzea besterik ez dago». Nafarroako beste zortzi udalek dauzkate honi buruzko diligenziak zabaldua.

AHAZTU GABE!

MUSIKA



Eguzki Irratiak antolatutako kontzertu erraldoia izanen da bihar, urtarrilak 7, Iruñean. Lin Ton Taun, Balerdi Balerdi, Urtz, Flitter eta ezusteko talde berezi batek kontzertua eskainiko dute gaueko 9.00etatik aurrera, Iruñeko kanpoaldean dagoen El Soto industri poligonoan. Ez dago galtzerik, antolatzaileen esanetan, aski ongi seinatu baitute iristeko bidea pankarta eta kartelekin. Kontzertuaren ostean gaupasa hasiko da Drindots taldearekin, goizeko lehen orduak iritsi arte. Eguzki Irratikoaren asmoa hamabi orduko festa antolatzea da, kontzertua eta gaupasarekin, iaz egin zuten bezala. Bertara joateko, gainera, ez dago inolako arazorik, Tres Reyes Hotelaren ataritik autobusak aterako baitira ordu erdiro, 20.30etatik aurrera. Sarrerei dagokienez, 1.200 pezeta salduko dituzte bertan, eta aurretik erosiz gero 1.000 pezeta. Aurretik erosteko Meson, Katu eta Ponpelo tabernetan eta Kilkir disko dendan salgai izanen dira. Kontzertuan bertan, edariak ezezik, bokatak ere izango dira, eta lokalaren dekorazioa azpimarratzeko delatzaileak, Leioako Arte Ederretako ikasle batzuek egina.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Donapaleu

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Argitze, zinema berria

HUR GOROSTIAGA / DONAPALEU

Bazuen beharra. Bakarrik, lagunekin zein familian zinemara joatea goxo da egiazki, batez ere aretoa etxe ondoan duzularik. Donapaleuko Argitze zinemak 50 urte darama, baina azken asteotan jantzi berriak erosi dizkiote gaztetasuna atxik dezan eta ikusleria fidelari plazer gehigo emateko.

Donapaleuko erdigunetik Iholdiko bidean goazela, ehun metrora aurkituko dugu asteko filma iragartzen duen panela. Parean, hainbertze indar joko zaletu eta gorengo mailako pilotari bere baitan hartu dituen Donapaleuko plaza libreko pilotalekua; eta ondoan, Argitze elkarteak hartutako Saint-Louis zinema areto erreberitu eta dotorea.

Konponketek bost aste iraun dute, herriko artisau eta bolondresen borondate eta lan onari esker. Pantaila edo trenkadura berriak ikusmena goxatuko digu filman gertatzen denari buruzko zehaztasun bat bera ere ez dezagun gal. *Dolby stereo* sistema akustiko modernoak filmean sartzea lagunduko du, eta aulki berri eta erosoek plazerrezko bi oren pasaraziko digute. Filmaeren ondotik, berriz, pote bat edo pare bat hartzeko xantza izanen da sarreran ezarri duten ostatuan.



Argitze zineman 180.000 libera gastatu dira lau asteotan.

HUR GOROSTIAGA.

Horrez gain, Donapaleuko zinemak, artistendako edo beren lanak jendaurrean agertu nahi dituztenendako erakusketa aretoa prestatu du leku berean.

Zinema 1945 urtean hasi zen. Saint-Louis parrokiaren esku, herritarren lau urteko lanari esker eraiki eta martxan ezarri zuten. Ikusleen aldetiko arrakasta ikusita, 1991n Argitze elkarteak

hartu zuen aretoa, oraino indar gehiago emateko. Jean-Marie Garat elkarteko buruaren gidaritzapean, zinemak bere orenik hoberenak ezagutu ditu ordutik.

Konponketen egiteko gastuak 180.000 liberara (4,5 milioi pezeta) iritsi dira. Horietarik 59.000 distritu, Kontseilu Nagusi, Erregio Kontseilu eta udaletik iritsi dira, eta gainerantze-

koa Argitze elkarteak bere gain hartu duen banku-maileguaren bidez. Konponketak egin eta 'Le Roi Lion' filmea pasarazi dute egunotan, aretoa golkoraino bete duena. Kontuan izan behar da Argitzek filme berrienak ukan ohi dituela, Baionan eta Parisen agertzen diren une berean.

Donapaleuko zinematik txango bat egitera pasatu nahi baldin baduzu, hona hemen asteburu honetako programa. Gaur arratsko bederatziatan, bihar bederatziatan, igandean arratsaldeko lauretan eta asteartean bederatziatan, Van Damme aktorearen 'Timecop' filmea ikusteko aukera izanen da. Asteartetik aitzina, berriz, 'Lady Bird' jatorrizko bertsiotan ikusteko aukera izanen da. On egin.

Baztan

Abenduko euriek kalte handia egin zuten Aritzakunen

IRUNEA

Abenduko euriek kalte handia egin dute Baztango zenbait auzotan, bereziki Aritzakunen. Hazitako errekek egurrezko zubiak bota eta errepideak suntsitu egin zituzten, eta zenbait zatitan, ia inkomunikaturik gelditu zen alderdi hau. Arraska eta Itzulegi bitarteko errepidea, kasu, mozturik gelditu zen, eta Aldakoe-txea eta Lalaria bitarteko pistek kalte ugari jasan zuten. Baztango Udalak horren berri eman dio Nafarroako Gobernuari eta Ebroko Ur Konfederazioari, kalteak konpontzeko laguntza eske.

Bera

Bost menderen buruan bere jauntxoa berreskuratuko du Alzateko auzoak

JON ABRIL / BERA

'Alzateko Jaun' antzerki ikuskizuna taularatuko du gaur eta bihar, ostirala eta larunbata, arratsaldeko zortzietatik aurrera, Lamixine BAT taldeak (Berako Antzerki Taldea), Berako Kultur Etxean. Duela bi urte, 1992. urtearen bukaeran sortu zen talde honek Pio Baroja idazle donostiar-beratarren 'La leyenda de Jaun de Alzate' idazlanean oinarritu du bere antzezlan, eta aurtengo ekainean edukitako arrakastaren ondotik, berrikuntzak sartu eta lan biribilago bat prestatu du.

Ikuskizunak Erdi Aroko gizarte pagano batean kristautasunaren sarrera kontatzen du. Era moderno eta ezohiko baten bidez, irudi biziak eta kolore biziagoak nahasten ditu, anakronismoz hornitua. Alzateko Jaunak Easora egiten duen bidaia da tramaren ardatz nagusia. Bere senideak eta alaba kristautzen direla ikusten duenean, egiaren bila

abiatzen da. Alzatera bueltan, bere inguruaren eraldaketa sumatzen du.

Hamahiru aktorek osatzen dute Irungo BAI antzerki talde profesionalak zuzentzen duen tailer hau. Gehienak beratarrik diren arren, Irun, Arantza, Orio eta Bordeleko partaideak ere badira. Jantziak, dekoratuak nahiz gidoia Lamixine BATEko ki-deek landu dituzte. Zuzenean jotzen den musika herrikoia eta Xabier Leterena da, flauta, eskusoinu eta pianoz joa. Horrekin guztiarekin lan umoretsua eta aldi berean negarrarazlea egitea lortu du taldeak.

Hau da, esan bezala, Lamixine taldeak taularatu duen lehendabiziko lana, 1992an sortu zenetik, prestakuntza lanetan aritu baita murgildurik. BAI Irungo antzerki talde profesionalaren eskutik, taula gaineko aktoreen trebetasuna zailtzen aritu dira banan-banan, eta hortik aurrera ekin diote lehen antzezlan prestatzeari. Lehendabizikoa izanik,

Pio Barojaren lan batean oinarritu dute, bai kontakizuna eta bai inguruaz ezagun askoa eginen baitzaio bertako jendeari.

Hamahiru lagunek hartuko dute parte gaurko emankizunean, eta ikuskizun bitxia izango dela ez da dudarik. Ramon Albistur eta Maite Agirre BAI taldeko partaideen zuzendaritzapean, ez da Pio Barojaren nobelaren bat-bateko irakurketatik sortutako Alzateko Jaun bat, bitxi samarra baizik. Antzezleek kolore biziko jantziekin aterako dira eta dekoratuak gorpildun aldamioekin daude eginak. Helburua da eszenatokian alde fiktizioa eta fisikoa banandurik uztea.

Adin guztietako lagunek osatzen dute talde hau, eta zenbait antzezle euskaldun ez izan arren, emankizuna euskaraz izanen da. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza ezezik, herriko banku eta taberna zenbaiten babesarekin izan du taldeak antzezlan prestatzeko.

Eguzki Irratia vs. Fukuyama

Milurtekoa amaitzear dago, eta ohiturari jarraiki, zenbaitzuk muduaren amaiera iragartzen hasiak dira. Fukuyama orojakilea da, seguru asko, horien guztien artean originalena. Besteok bezala munduaren amaiera iragartzen du, baina ez mundu fisikoa, baizik eta azken hamarkadetan ezagutu dugun mundu intelektuala. Haren irudikoz, ideologien egin du, akabo ezkerre, akabo eskuina, akabo dena.

Toreroak esan zuen bezala, ezinezkoa dena ezinezkoa da, eta horretaz gain inposiblea. Gaztedia mugiaraztea, berriz, lehen baino nekezagoa da, hori ezin uka, baina ez da ezinezkoa. Eguzki Irratia, esaterako, horren erakusgarri. Horri ez zaio ideologia kutsurik falta, eta astero ehun gazte inguru lanean aritzen dira irratia aurrera ateratzeko xedeak elkarturik. Lan horren bitartez,



gainera, beste hainbat gazte eta nagusi mugiarazten dituzte, joan den urteko urtarilaren zortzian irratia antolaturiko kontzertu lekuko.


Dena dela, bakoitzari berea eman behar ei zaio, eta Fukuyamaren argudioek nolabaiteko funtsa badutela onartu beharko dut. Izan ere, teorien ezkerzaleak diren gazteen artean elkartzuna bezalako funtsezko balorea galtzear dagoela klarki antzeman ahal izan nuen kontzertu hartan. Kalimotxo antolatzaileek espero baino goizago agortu zen gau hartan, ni barran kalimotxo katxia eskuratzeko borrokan murgildurik nabilelarik hain zuzen. Irratikoez kalimotxo gehiagorik ez zegoela azaldu zutenean, nire alboan zegoen mutikoteak barra osoan zerbitzatutako azken katxia jaso zuen. Lagunarteko ezkeriar giroan murgildurik geundela kontuan hartuz, katxi hura sozializatzea proposatu nion. Mutikoteak «Tú de qué vas?» besterik ez zidan erantzun. Penagarria.

Eguzki Irratia Fukuyamaren kontra ariko da berriro ere bihar, El Soto Industri Poligonoan, Lin Ton Taun, Urtz, Flitter, Balerdi-Balerdi eta Drindotsen laguntzaz. Ea aurten 'Tú de qué vas?'-ik ez dudana entzuten.

Galaxiatik Gasteizera

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Aurtengo Korrika apaldian prestatzen hasia bada ere, otsailaren hasieran egingo den bideoaren aurkezpenarekin izango du abian jartzeko lehen etxafue-roa. Ez dira korrikan hasiko oraindik AEKzaleak, baina jende askoren laguntzari esker Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatzen dituen herri lasterketa bitxi honek lehen pausoa emango du orduan. Horretarako lau iruindar ari dira buru-belarri 9. edizio honen aurkezpen-egiria prestatzen. Manolo Gil bideogi-



Jokin Larrea, Manolo Gil eta Juan Kruz Lakasta.

JOXE LACALLE

garbi zuen lan egiteko modua desberdina izango zela. «Orduan ia lan guztiak neronek egin nituen» azaldu du Gilek, «eta oso gustura gelditu nintzen emaitzarekin, baina orain ez nuen horrela egin nahi, talde baten laguntzarekin baizik. Nire inguruan oso ongi lan egiten duen jendea elkartu dut, eta emaitza hobea izango da denentzat: produktuan igerri egingo da, igerri ere».

BI Gidoia Jokin Larrea, Juan Kruz Lakasta eta Patxi Uhartaren lana

zan da, eta kilometro bat eroserera datozen bi estralurtarren pasadizoak ditu oinarri. Bi pertsonaia hauek —Martxelo eta Martina— Galaxien Arteko Entziklopediaren bitartez dute Korrikaren berri, eta Euskal Herrira bitartez kilometro bat erosteko asnotan.

Horretarako, entziklopedian igeri diren hainbat pertsona —Bittor Alkiza Athleticoko jokalaria, Unai Iturriaga bertsolari bizkaitarra, Kontxu Odriozola Goenkale' Euskal Telebistako iaio arrakastatsuen aktorea, eta AEK kide bat— ezagutu, eta, zpi berezi baten bidez, euren bilgailura eramaten dituzte. Korrikaren berri izateko eta baten azken helburua lortzeko: kilometroa saldu dieaiekeen pertsona aurkitzea.

Bitartean, pertsona hauek guztiak Korrikaren izaerari eta berezitasunei buruzko iritziak ematen dizkiete, ideia bat osatu arte. Azkenean, baina, Korrikaren kilometroa erosi nahi eta mugari bat eramaten dute euren planetara.

Hasierako ideia Manolo Gile-na izan zen, baina aipatu Lakasta, Larrea eta Uhartaratu dira forma eta azken itxura ematen. «Azkenean Korrikaren zaletu amorratuen izaera eman diegu estralurtarrei» azaldu du Juan Kruz Lakastak, «eta, Galaxien Arteko Entziklopedian dauden akatsak direla medio, ezusteko pila hartzen dute».

Zailena, bere hitzetan, oreka gordetzea izan da. «Alde batetik, ezin zen oso barregarria izan, bestela mezua gaidu egingo izatekeelako, baina, bestetik, oso arina egin nahi genuen, bestela inork ez zuelako bideoa jasangor».

MARRAZKIAK Marrazkiak Jokin Larrearenak dira, eta bideoan azalduko diren txotxongiloek —Bilboko Kukubiltxo aldeak eginikoak— marrazkiok dute oinarria. Marrazki biguinak behar zituztela eta, 'Barrio Sé-

Animazioa —ordenadoreen bidez egin beharreko hainbat efektu berezi— Jokin Larrea eta Maria Angeles Amorenaren esku egon da. Horren bidez bideoan azaltzen diren zazpi sekuentzia egingo dira, hamar segundukoak, eta horretarako prozesua zinema kutsukoa da oso: lehen-dabizi marrazkiak egiten dira, banan-banan —Walt Disney etxeak, adibide bat paratzearen 26 marrazki egiten ditu pantailan proiektatzen den segundu bakoi-tzeko—, ondoren ordenadorean sartu, eta bertan uzartu, bata bestearen atzetik jarritz. Lan guzti horren emaitza, azkenean, bideoa igarotzen da.

MANOLO GILEN Manolo Gilena da **KOORDINAZIOA** hauen guz-tien arteko koordinazioa eta zuzendaritza, eta, bere hitzetan, oso ondo uzartzen da ideia bideoak berak duen helburuarekin. «Hasieratik nahi genuen zerbait oso telebistakoa, kirikada batean erraz ulertzekoa izango zena, bideoa berez promozioa egiteko

Marrazkiak —Jokin Larrearenak— bideoan azalduko diren txotxongiloen —Bilboko Kukubiltxo aldeak eginikoak— oinarria izango dira.

izango baita, Korrika hau zer den eta zergatik egiten den azaltzeko. Gainera, adin guztientzat aproposa behar du izan, eta nahi izan genuen zerbait *naif* egin, 'Teleñecos' telesailaren garai onenen antzeko pertsonaiekin: jendeari interesgarri iruditu zitzaizkion pertsonaia, hain zuzen ere», azaldu du Gilek.

Proiektuak harrera ona izan zuen AEK-ko arduradunen artean, nahiz eta hasieran zerion umorea gordinegia izan zitzaien. «Kontuan hartu behar da» argu-

ukitu mikatz samarra, Irufean egiten den umore berezi horren islada. AEKn esan ziguten bideo atsegina behar zutela, eta, beraz, txuriagoa egin dugu, xuabeagoa».

Partaide guztiak beren arloko lana bukatzen ari direla, luze ga-be amankomun jarriko dira ideia, eta otsailaren hasieran kalean egon behar du.

Horrekin batera, eta bideoaren barruan, beste bidetarik zabalduko den bideo-klip bat ere ekoiztuko du Manolo Gilek, eta horretarako euskal artista ezagun batzuek egin duten lana erabiliko du.

Izan ere, bideo-kliparen musika Kepa Junkerak paratuko du, hitzak Edorta Jimenezek dira, eta Exkixu, Sorotan Bele, Amaia eta Ixiar eta Lin Ton Taun taldeetako abeslariak kantatuko dute. Halaber, telebistan promozioa egiteko hamar eta hoge segunduko laburpenak egingo ditu Gilek.


Azken lan honen itzalak handiagoa egingo du Manolo Gilek euskal bideogintzan duen ospea, talde garrantzitsuen bideoekoizlea izateaz gain, sari franko eskuratu baititu azken urteotan, tartean Gasteizko musika-bideo jaialdiaren sari garrantzitsuenak, bai Barricada bai Los Huajolotes musika taldeekin egin dituen laneei esker.

Duela gutxi, hain zuzen ere, Pata Negra talde flamenko espainiar ospetsuaren bideoa egiteko eskaintza izan du, eta onartu, jakina. «Izugarri gozatzen dut egiten dudanarekin, gustukoa dut oso egiten dudana. Gainera, urte asko daramatzat mundu honetan sartuta, eta oso identifikatuta nago egiten dudanarekin».

Garrantzitsuena, bere ustetan, egiten denari «begirune handia izatea» eta gauzak txukun egitea da. «Lan guztiak ongi egiten ahalgintzen naiz», adierazi digu Manolo Gilek.

Bideo-klipa ere egingo du Manolo Gilek, eta horretarako Kepa Junkerak egin du musika eta Edorta Jimenezek hitzak.

diatu du Gilek «gu guztiok nafarrak garela, eta batzuek 'TMEO-n', Eguzki Irratian eta abar lan egiten dutela. Bideoan hori isladatzen zen, eta bazegoen




learen zuzendaritzapean, Jokin Larrea eta Patxi Uhartaratu komiki-gileek eta Juan Kruz Lakasta EGUNKARIAKO kazetariak osaturiko taldeak bederatzigarren Korrika honek zeharkatuko dituen herri eta euskaltegi guztietan banatuko den bideoa du osatutua.

Garazitik atera eta Gasteizen amaituko den Korrikaren edizio honek 'Jalgi hadi euskaraz' izango du lema, ez alferrik hautatutakoa. Izan ere, 1995. urte honetan ospatzen da Beñat Etxeparek garaztarrak euskarazko lehen liburua karrikaratu zuenetik 450. urteurrena.


AEK-koen ustetan, orduko liburuaren mezuak ez du galdu gaurkotasuna, eta hortik lema eta lasterketaren abiapuntuaren aukuraketa. Halaber, Mikel Laboa kantaria omenduko du aurtengo Korrikak.

Ez da AEK eta talde honen arteko harremanak sortzen duen lehen produktua. Aurreko edizioan ere Manolo Gil arduratu zen bideoaz, eta, Patxi Uhartaratu aurkezpen lanetan sartuta, Lesakan kokatutako telebista kate ez-legezko batek Korrikari buruz ematen zituen notiziak izan zituen abiapuntu. Emaitza AEK kideen gustukoa izan zen non-bait, eta Manolo Gilek hots egin zituen berriro ere, Honek, baina,





XAKEAN



Iruñeko Hiria xake Torneo Itxi-ko 3. jardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 29an jokatu.

Lluís Comas, 2.500 ELOkoa (Catalunya)-Vaselin Topalov, 2.645 ELOkoa (Bulgaria).

1.d4,Zf6; 2.c4,c5; 3.d5,b5. Ez ohiko ateraldia. Damaren peoia aurrera joan denez gero, peoien egitura haustera doaz beltzak, espazioen bila. 4.b5,a6; 5.a6. Berehalaxe piztu da sua. Txuriek, peoi bat gehiago, beltzentzat, espazio zabala. 5...g6; 6.Zc3,Aa6; 7.e4. Aurreratutako peoia laguntzeak endrokearen aukera apurtzea ekarriko du. Txurien lehenengo estutasunak. 7...Af1; 8.Ef1,d6; 9.g3,Ag7; 10.Eg2,bZ-d7; 11.Zf3.Pieza garatzea ematen du. Baina 'e4-ko' peoia ahula bihurtu da. 11...0-0; 12.h3,Ga6. Alde hori mugiarazteaz gain, 'd6-ko' peoia babesteko asmoa badago, 'e7-ko' peoia aurreratzen denerako.

13.Ge1,Da8; 14.Ge2,Gb8; 15.De1,e6; 16.e6, e6; 17.Zg5,Ge8; 18.f4,c4; 19.Ae3,e5; 20.Gd1,h6; 21.Zf3,f4; 22.f4. Peoia galduko dutenez gero, hobe zuten 'Af4'? Ez, beltzek kokilduaraziko lituzkeelako ('b5', 'Zc5', 'Zd3'). 22...Ze4; 23.Zd5,Db7. 'Zc7' galarazteko. 24.Ad4. Ikus koadroa. Etorriko diren aldaketek partida beltzen esku utziko dute. 24...Dd5; 25.Ag,Df5; 26.Ah6,Ga2; 27.Gd6,Gb2; 28.Gb2,Zd6; 29.Dc3,Df6; 30.Df6,Zf6; 31.Ze5,fZ-e4. Alfilarren posizio txarrak kondenuatu ditu txuriak. 32.h4,c3; 33.Ge2,Zf5; 34.Ef3,Zd2 xa; 35.Ef2,Zh6; 36.Ee2,Zc4. Txuriek etsi zuten. Partida ederra. Beltzen erasoak txurien defentsa gaintu zuen.

Iruñe eta nabala

Galdera: Gaitz da esaten nola-koa zen nere maitalea. Iruñe, Greziako eskulturak baino ederragoa zen. Ziur naiz, izena eta itzala uzteaz gain, irauten badugu heriotzaz bestaldean, Iruñe han izanen dela. Gustora laburbilduko nuke nere espe- roa, eta amodioarengatik hilgo oraintxe berean, eskuan dudan nabala nire bihotzean sartuz. Baduzu zerbait esateko nere kasuz?

Erantzuna: Zein arotzek mailukatu ote zuen ingudean zuk eskuan duzun nabala itsu hori? Urrikalki-zun dira zurea bezalako amodioak. Ez luzatu amodio tragikoen zerranda, nahiko hanpatuta dago eta. Saia zaitez marmorezko eskulturaren bat zintzelatzen, Greziako irudiak aipatu baitituzu. Hitza nahiago badu-


zu, idatzi hilketa bat, geroko belau- naldiek, neguaren animalezko hotzak jotzen duenean harroki, sutondoan irakurriko dutena gustora, eta Iruñeraren edertasunaren tamainaren berria edukiko. Martin Indaburuk dioenez, 'arimen eta usoen/ egaldacatzea dal haizien arabera'. Bildu zure hegoak, eta haizegoa Espainiatik heltzen denean, zabaldu, ea zori hobea duzun.

Galdera: Estraterreste bat naiz, AXS5 galasiatik joan den neguan etorria. Gure itxura ez dator bat hemen duzuen edertasun ereduarekin. Hori zela eta, Marta Sanchezez mozorratu nintzen, edo hobeto esanda, bihurtu nintzen. Nirekin maitemindu zen Seat-era Alemaniatic etorri zen teknikari bat. Susmargarri izan ez zedin, harreman

Koloreak

Koloreak lurraren sorreran ager- tu zirela esan ohi da, beti izan direla. Pertsona batzuek berri, geroago sortu zirelakoaren teoria baieztatzen dute (gutxi dira pertsona hauek, zoritxarrez). Urte askotan uste izan da ez direla pertsona edo jainko batek sortuak, eta ideia hori deusestazteko garaia dela uste dut.

Ni ez naiz garai honetako gizaki bat: lurrarekin batera sortua izan nintzen, eta bakarrik bizi izan naiz Laugarren Aroa heldu arte (lehenengo gizakiak sortu ziren garaia heldu arte, alegia). Bizirik iraungo dut lurraren desagertzea izan arte, eta bizi izan



Laura Marcos

(BARAÑAIN)

nahia hori zen, jainko guztiena, batena izan ezik: Karnat jainkoarena, poza, baikortasun eta itxaropenaren jainkoarena. Bera besteen pentsamoldearekin ez zegoen ados, eta egun batean, denak lotan zeudelarik, lurra gauza politetz bete zuen; inoiz ikusi ez nituen gauza ederrez, baina koloregabekoak.

Jainko guztiak esnatzerakoan, oso haserre jarri ziren, baina Karnatek egin zituen gauzak ezin izan zituzten ezabatu: lurrean geratuko ziren betirako.

Jainkoak loak hartzerakoan, Karnatek gauza arraro bat egin zuen zeruan, kolorez beteriko marra tolestatu baten antza zeukana: gorago jakin nuenez, 'ortzadarra' deiturikoa.



naizenez, dena dakit. Eta dena dakidanez, koloreen sormenari buruz dena dakit. Eta koloreen sormenari buruz dena dakidanez, kontatuko dizuet.

Koloreak, uraren, zeruaren, hodeien, landareen, eta abarren sorerekin batera sortuak izan ziren, Karnat deituriko jainkoaren nahiaz. Lehen dena koloregabekoa zen, hutsa, aspergarria, monotonoa. Ez zegoen ezer ez: ez urik, ez eguzkirik, ez landaririk, ez surik, ezta kolorerik ere. Jainko guztien

Jainkoak esnatzerakoan, haserrearen haserrez, ortzadarrari madarikazioak botatzen hasi zitzaizkion, zerutik ezabatu nahian. Baina ez zuten lortu, eta denen haridurarekin, ortzadarratik kolore izpiak ateratzen hasi ziren, lurraren osagai guztiak —Karnatek sortu zituen osagai guztiak— koloreztatu arte.

Hau da koloreen sorreraren benetako teoria bakarra, gizaki guztiei kontatua izan behar dena.



Bildu zure hegoak,
eta haizegoa
Espainiatik heltzen
denean, zabaldu, ea
zori hobea duzun.

'osoak' eduki genituen, eta egia esan oso plazer xumea iruditu zitzaidan. Gure galasian urtean behin baino ez gara larrutan ibiltzen, baina gure galasian gertatzen diren klimasak sei aste- tekoak izaten dira, gutti goitti beheitti. Baina hori ez da gaia. Teknikari alemaniar honi esan diot nor naizen, eta nondik natorren, baina ez dit sinisten. Egia esan nire 'mozorroa' dela eta, nik ezin diot alemanieraz mintzatu. Keinuz elkarri ulertzen diogu. Afera da bion artean etxe bat erosi genuela Paulino Caballero karrikan. Gure azterketa galaktikorako behar dut etxe hori baina gizona ez da lasaitzen eta negar batean dut etxean. Eta jakina, AXS5 galasira banoa, halako 'presenteko- arekin', bada, mende eta mendeko ospe pertsonala akabo. Ba al dago edaririk edo bazkaririk edo zernahi dela ere maitemint-

duak desmaitemintzeko?

Erantzuna: Nere estraterreste maitea. Banuen gogorik honako galdera honi aurre egiteko. Zure kasua tipiko-tipikoa da, zenbait nabardura kenduta. Amodioa ahitzeko botikarik onena ez bairik gabe gogaitasuna eta aspertasuna dira, eta jakina, zu estraterrestrea izaki, Marta Sanchez bilakatua, eta pisu bat Paulino Caballero edukiki, ez daiteke oraingoz urgoitu. Asper- tzeko leku asko dituzu hiri honetan. Esate baterako, zezen-txulatzeak gogoko ez badituzu, ezta hamasei urte ere, nik segidakoa errekomen- datzen dizut. Sanferminak. 'Talde kasta' batekin joan zezen-plazara, uhoitz bat irina, insektizida-heda- gailu bat, eta pikadorea zure ondo- tik pasatzean egin punteria. Gero prezio onean erosi kotxe zahar bat, teilatua moztu eta zure adiskideekin paseatu hiri zoragarri eta erroman- tiko honetan barna.



onartu zuen Iruñeko Udal bilkurak.

Aipatu idazkiak gehiegi sakondu gabe aztertzen du Alde Zahararen afera, eta bost zutabe nagusitan oinarritzen da: aparkalekuen sorrera, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako sareen diseinua, espazio libreak, erakuntza irizpide berriak, eta oinarritzko azpiegituraren hobekuntza.

Txostenak gehien bat aparkalekuen afera sakontzen du. Hiru aparkaleku moeta ezartzen ditu. Lehendabizikoek Alde Zahararen inguruko biztanleak hiri gunera hurbiltzea erraztuko luke. Hauek mixtoak lirateke (Alde Zaharreko bizilagunentzat eta kanpotarrentzat), eta Alde Zaharra inguratuko lukete: Santa Maria La Real, Labrit aldapa, Inmaculada plaza, Basotxo karrika eta Santo Domingo aldapa. Bestalde, bigarren motako aparkalekuak auzoko bizilagunentzat izanen lirateke, eta Alde Zaharrean bertan leudeke, hain zuzen ere Redin aldapan, O plazan,

I azko azken udal bilkuran, zoladura proiektu berria onartzeaz gain, Alde Zaharreko etorkizunari buruzko txostena aztertu zen.

Txostenak hiru aparkaleku mota zehazten ditu: mistoa, bertako bizilagunentzako, eta OTA motakoa, Gazteluko Plaza eta Sarasate pasealekuan.

Compañía eta Jarauta karraketan, eta Recoletas plazan. Iruñeko Alde Zaharreko azken aparkamendu mota TAO izanen litzateke, eta hori Sarasate paseabidean eta Gaztelu plazan izanen litzateke.

Oinezko eta ibilgailuentzako sareei dagokionez, zehaztapen handiegirik gabe, txostenak lau karrika moeta proposatzen ditu, soilik oinezkoentzat direnak eta kotxeak gau eta egunez har ditzaketenak barne. Horren inguruan garraio publikoen garrantzia azpimarratzen du Udaleko teknikarien txostenak.

Idazkiak, halaber, lehentasuna ematen die hala oinarritzko azpiegituren hobekuntzari nola hirigintzari. Batetik, zerbitzu orokor gehiago sortu baino daudenak hobetu behar direla dio, eta bestetik, Alde Zaharreko erakuntzetan homogeneousazioa bilatu behar dela. Espazio libreei dagokionez, azkenik, plangintzak barne patioen eta aparkalekuen berreskurapena aldarrikatzen du.

Urte zaharra akitu eta berria hasi dugu, baina Iruñeko Alde Zaharrean arazoak ez dira aldatu. Joan den urteko azken Udal Bilkuran zinegotziek hamar karrikatan zoladura berria jartzea onartu zuten. Hori izanen da Alde Zaharrean, oraingoz, aldaketa bakarra. Peatonalizazioaren aferak hortxe segitzen du, ilun samar, eta aipatu bilkuran onartutako Alde Zahararren Geroari buruzko debatea bultzatu nahi duen txostenak ez du argirik ekarri.



Iruñeko Alde Zahararren geroaz mintzatu nahi du udalak. JOXE LACALLE

rraren etorkizunaren inguruko debate zabal baten oinarria izan nahi du, eta bilkurako alderdiei ezezik, interesaturiko elkartei debetako atea zabalik uzten dizkie.

Oposizioaren aburuz, txostenak hutsune nabariak ditu, berandu heltzen da, eta seguruenik ez du inolako elkarrizketarako paradarik emanen. Azkenean, txostena lan tresna modutzat

Alde Zaharrean betiko arazo zaharrak

J.K.L. / IRUNEA

Iruñeko Alde Zahararren etorkizunak zer-esan ugari eman ditu urte zaharrean zehar. Hiri gunearen peatonalizazioari buruzko iritziak nonahi eta noiznahi entzun ahal izan dira: peatonalizatu behar da, ez da peatonalizatu behar, peatonalizatu bai, baina gutxi... Aparkalekuen auzia ere ahoz aho ibili da: aparkalekuak bai, aparkalekuak ez, aparkalekuak segun eta depende, segun eta non, segun eta nola, segun eta norentzat, segun eta ze prezioan... Erakunde eta elkarte askotxo mugitu dira aferaren inguruan, Iruñeko Udala, Komertzio Ganbara, Auzo Elkarteak, El Centro dendari elkarteak, Alde Zaharreko Dendarien Elkarteak...

Urte zaharrean zehar iritzi asko entzun ahal izan dira, bai, baina, azkenean, urte zaharrak urte berriari begira Alde Zaharrena aldaketa bakarra ekarriko du, hain zuzen ere joan den abenduaren 30ean urteko azken Udal bilkuran onartutako zoladura proiektuak eraginen duena. Ho-

rren arabera, urte berrian egun soilik oinezkoentzat diren Alde Zaharreko zazpi kaleetako eta Estafeta, San Saturnino eta Nagusi karriketako espaloiak desgertaraziko dira, horien ordez karrikak alde batetik bestera estaliko dituen zoladura berria jarri ahal izateko. Aldaketa aurrera eraman ahal izateko, 225 milioi gastatuko ditu. Horietatik 50 1994ko aurrekontuetatik aterako dira, beste 50 1995 aurrekontuetatik, eta 125 Nafarroako Gobernuak ordaindu beharko ditu, gobernuak eta udalak sinatutako akordioei jarraiki. Hori da guztia.

ARAZO ZAHARRAK TINKO

Urte berrian Alde Zahararren etorkizunari buruzko eztabaidek, beraz, bizi-biizian segituko dute. Aipatu abenduak 30eko Udal Bilkuran zinegotziek, zoladura proiektua onartzeaz gain, Udaletxeko Hirigintza Delegazioak Alde Zahararren etorkizunari buruz prestatutako txostena aztertu zuten. UPNkoen arabera, txostenak Alde Zaha-

«Garrantzitsuena gizakia birziklatzea da»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

Iruñeko Traperos de Emaus taldea Saratsara (Itzako Zendea) doa, han erosi berri duen lantoki berrira. Orain artekoa aspaldi txikia gelditu zitzaiera eta, beren lana txukun eta kalitatez egiteko pabilioia izango da oraingoa. 1972an sortu zen talde honen aurrerapausoa da, baina ez azkena, antza.

EGUNKARIA.— Saratsara egin behar duzuen jauzia azkena da, edo beste urrats bat besterik ez?

JOSE MARIA GARCIA.— Azken urratsik ez dago. Gu, mu-

eta atera besterik ez dugu egiten, ezin ditugulako produktuak landu eta hobetu nahi genukeen bezala.

EGUNKARIA.— Orain arteko lana, beraz, biltegiarena egitea izan da zuendako?

GARCIA.— Jakina. Kontuan hartu behar da urtero biltzen dugula hiru milioi kilo inguru. Hau da, Gazteluko Plaza beteko genduz bost bat metroko alturarekin. Nafarroako populazioaren % 70i egiten diogu zerbitzu, eta hori kopuru handia da, baina bildutakoaren % 30 zaborteagira doa, birziklatzeko baliabideak ez ditu-

urrats guztiak esperientzien gainean eman ditugu, eta, beti ere, genuen jendearen errealtateari begira, sekula ez dirua edo etekina helburu izanik. Duela urte batzuk gure lan ordutegia murriztu genuen, hain zuzen ere, jende gehiago hartu ahal izateko. Hirurogeita lau gaude, eta orain egiten dugun lana lasai asko egin genezake 40 pertsonaren artean.

EGUNKARIA.— Traperosen izaera garbi dagoela uste duzu? Jendeak ez al zaituzte gehiago ezagutzen materialen birziklatzaile gisa?

GARCIA.— Nik uste dut ezetz,

pertsonen errealtatearen arabera; produktibitate kopururik ez dugu erabiltzen langileekin, pertsona batek, bere ahalmenaren % 1 eskainita ere, badituelako eskubideak...

EGUNKARIA.— Birziklatzeko zailagoak dira pertsonak materialak baino?

GARCIA.— Ez dakit zailagoak diren, baina bai garrantzitsuagoak. Gizaki guztiei eman behar zaie aukera gizakia izateko. Gizarte honen abiabuntua aberastasun pribatua da, eta ez diogu erreparatzen taldeari, gainontzekoei, eta egunero galtzen ditugu balore garrantzitsuak. Guk gure ideiak ere zabaldu nahi ditugu, ikusten

Jose Maria Garcia

'TRAPEROS DE EMAUS' ELKARTEKO KOORDINATZAILEA



Jose Maria Garcia hasieratik dago taldean.

JOXE LACALLE

gimendu bat izanik, dinamikoak gara, atzera eta aurrera egiten dugu, zuzen eta zeharka. Oso garrantzitsua da guretzat lantoki berri hau, lan kalitatea hobetuko dugulako, birziklatzearen erredukzio handiagora lortuko dugulako, eta lan baldintzetan hobekuntzak izango ditugulako. Urteak eman ditugu lokal berri batekin ametsetan, 500 metro koadroko txabiske batean 7-8 kamioi sartzen ari garelako egunero. Horregatik, gauzak sartu

gulako. Orain Nafarroako Gobernua dirulaguntza eman digu, baina ez gara diru eske aritzen proiektu soziala gazartzeko, baldintzen eske baizik.

EGUNKARIA.— Inoiz ez duzue pentsatu hain lan kopuru handiak zuen proiektua ito zezakeela?

GARCIA.— Ez, gure hazkundera lasaia izan delako beti. Ez gara inoiz ur handitan sartu, eta eskuratu ditugun lanak horretarako ahalmena genuelako eskuratu ditugu. Gainera,

batez ere jendearekin dugun eguneroko harreman bidez sumatzen dugulako ezagutzen gaituztela. Guk beti esaten dugu hau ez dela enpresa bat, giza proiektu bat baizik. Hau da, lana, guretzat, bide bat besterik ez da, bide bat beste helburuak lortzeko: lana, langilea eta etekinaren ideia berriak eraikitzeko. Uste dugu, adibidez, etekina, baldin bada, banatu egin behar dela. Hala ere, ez dugu pertsonak lanen arabera egokitzen, baina lanak

«Produktibitate kopururik ez dugu langileekin erabiltzen, pertsona batek, bere ahalmenaren % 1 eskainita ere, badituelako eskubideak».

dugulako zer neurritan hazten den kontsumoa. Hau da garapenaren gakoa, baina pobretasunerako bideak dira, kontsumitzea, azken finean, zaborra sortzea delako.

EGUNKARIA.— Nola zabalitzen dituzue ideia hauek gizartera, beste taldeetara?

GARCIA.— Iritzi-topagune askotan parte hartzen dugu, eta orain materiala berreskuratzen duten taldeen artean elkarte bat sortu nahi dugu, ideia baten inguruan: gizakia eta materialaren berreskurapena bateratzea. Baina ez da erraza zure mezua zabaltzea gizartearen, marketina hor dagoela... Mareari aurre egitea bezala da.

SOSLAIA

Talde gizona

Jose Maria Garcia ez du, akaso, bere izen-deiturak berberak dituen irratigizonak futbolaz dakien bezainbeste jakingo, baina badaki zer den talde bat, eta nola eraman aurrera. Traperos de Emaus elkartearen koordinatzailea da, eta orduan zenak ez du antzik gaur egun denarekin. Gizarteak berak bazterrekoak egin dituen gizakiz osatuta, hondarretatik eta zaborratik 64 lagun bizi dira egun. Garcia dioenez, orain Saratsara zabaldu behar duten pabilioi berriarekin lan-baldintzak hobetuko dira franko, eta hamar langile gehiago sartuko dituzte. Horretarako Nafarroako Gobernuaren 25 milioi pezetako dirulaguntza jaso dute.

NOSKI JATOR

— Koadrila alegera festan da —

© Zaldi EROA

